

ESKUARA ETA ESKUALDUNAK (L A P U R T A R R E Z)



AIREA: *Bas'oillarrak kantatzen dizu
Iratiko soruan....*

Mila bat zortzi eun eta
Lau etan ogoiean,
Bertsu berri auk eman dire
Aire zaar batean;
Gure aitaso Kantabreak,
Lo baitaude lurpean,
¿Ez ote dire atzarriko
Aire au aditzean?

Mendi gainetik asten banaiz
Kanta unen kantatzen,
Oian zokouk oiarzuna,
¿Zer dautak iardesten?
Obietarik aitasoak
Ote dire mintzatzen?
Zer aiteke i, oiarzuna,
Eien oina baizen?

Gure aitaso Kantabreak,
Mende zaarrenetan,
Gu orai gisa edatuak
Alor autan beretan,

Anaiak ziren «Guziak bat»
Mendien bi aldetan;
Jainkoa choilki zen errege
Eskualdun etcholetan.

¿Nork ez dituske gure aiten
Balentriak aditu?
¿Zelaietako zenbat etsai
Ek ez zuten suntsitu?
Semeak aita dik iduri,
Zeren neork ez baitu
Bere errian egundaino
Eskualduna garaitu.

Larrun, Mundarrain, Altabizkar,
Zuen egi muturrak
Miise batek ila gisa
Gorde ditik elurrak;
Larru baletza orai ere
Azaletik aitzurrak;
Ikus gintzazkek agerian
Aita beren ezurrak.

Erreka zepo ziloetan
Bizi bada belea,
Toki goretan arranoak
Eiten du oatzea;
Ala du mendi bizkarretan
Eskualdunaketchea,
Biek andizki dutelakotz
Maite libertatea!

¿Zer da liburu zaarrenek
Irakasten dutena?
«Urrunegitik eldu dela
Eskualdunen omena;
Ez dakitela noiztik duen
Eskuarak astapena....»

Zeren Eskuara baita naski
Mintzoetan leena.

Jakintsu batek, aditu dut,
Nonbait erran duela:
«Eskualdun izan baino leen
Gu erdaldun ginela».
Ichilik ago, aal baduk!
To! jakintsun ergela,
Ez erran guri arranoa
Beletik eldu dela!

«Ire amaren besoetan
Lo agoen, aurtchoa;
Aingeruekin ametsetan
Irriz ago, gachos;
Erregerentzat on badire
Pordoin eta koroa,
Obeago duk iretako
Amatoren aizoa!...»

Nola birundan arbolari
Da segitzen itzala,
Bakotchak ala sor-lekua
Beti maita dezala!
Anaiak gaituk, Eskualdunak,
Orai ere; ochala
Jartzen bagine «Guziak bat»
Leenago bezala!!

PIARRES ADAME.

